

i-gipuzkoa2010 | 

GIPUZKOA INFORMAZIOAREN GIZARTEAN

GIPUZKOAR GIZARTEKO BIZIMODU DIGITALA 2008

GIPUZKOA
berrikuntza lurraldea
territorio de innovación
www.i-gipuzkoa.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarte Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento


berrikuntza urtea
año de la innovación



AURKIBIDEA

a.	Aurkezpena	2
b.	Laburpena.....	4
c.	Nola nabigatzen dugu?	10
d.	Zein dira gure e-gaitasunak?.....	16
e.	Zenbat eragiten du Internetek gure bizitzetan?.....	22



TAULEN AURKIBIDEA

d.1 taula	Interneten nabigatzeko aukeratutako hizkuntza.....	14
e.1 taula	Internet nabigazioa: hastapena.....	16
e.2 taula	Interneteko arazoak edo zalantzak argitzeko laguntza.....	17
e.3 taula	Internet erabiltzeko gaitasunak.....	18
f.1 taula	Internetekiko jarrera pertsonala, adinaren arabera.....	23
f.2 taula	Internetekiko jarrera pertsonala, lan egoeraren arabera.....	23
f.3 taula	Internetek eguneroko jardueretan duen eragina, adinaren arabera.....	24
f.4 taula	Internetek eguneroko jardueretan duen eragina, lan egoeraren arabera.....	25
f.5 taula	Internetek harreman pertsonaletan duen eragina, adinaren arabera*.....	26
f.6 taula	Internetek aisialdian eta entretenimenduan duen eragina, adinaren arabera*.....	27
f.7 taula	Aisialdia eta entretenimendu jarduera tradizionalak Sarearen bitartez, adinaren arabera*.....	28



GRAFIKOEN AURKIBIDEA

d.1 grafikoa	Internet etxebizitzetan	10
d.2 grafikoa	Banda zabaleko konexioa etxebizitzetan.....	11
d.3 grafikoa	Interneten sartzeko gailu berriak	12
d.4 grafikoa	Software Librearen erabilerak.....	13
d.5 grafikoa	Interneteko hasierako orrialdearen hizkuntza	14
e.1 grafikoa	Laguntza Interneteko arazoak edo zalantzak argitzeko, sexuaren arabera.....	17
e.2 grafikoa	Internet bidezko prestakuntza	19
e.3 grafikoa	Komunitate birtualak: gaiak	20
f.1 grafikoa	Internetekiko jarrera	22
f.2 grafikoa	Internetek eguneroko jardueretan duen eragina.....	24
f.3 grafikoa	Internetek harreman pertsonaletan duen eragina*	25
f.4 grafikoa	Internetek aisialdian eta entretenimenduan duen eragina*	27
f.5 grafikoa	Aisialdiko eta entretenimendu jarduera tradizionalak Sarearen bitartez*	28
f.6 grafikoa	Internetek prestakuntza eta ikaskuntzan duen eragina *	29



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 

a



Aurkezpena





a.

Aurkezpena

Txosten honen helburua Gipuzkoako herritarrei Interneten eta IKTen erabileraren inguruan egindako inkestaren emaitza nagusiak aurreratzea da, baliabide horiekin lotutako hainbat alorretatik abiatuta.

Zehazki, hauek dira landutako hamabi alorrak:

Nola nabigatzen dugu?

- Interneten erabilera
- Sarbidearen kalitatea
- Mugigarriaren bidezko Interneteko sarbidea
- Software librearen erabilera
- Nabigazio hizkuntza

Zein dira gure *e-gaitasunak*?

- Laguntza eta babesa nabigazioan
- Abileziak eta gaitasun teknologikoak (e-skills)
- Onlineko prestakuntza eta ezagutza
- Web 2.0: Sarean parte hartzea

Zenbat eragiten du Internetek gure bizitzetan?

- Internetekin eta IKTekin lotutako jarrera pertsonala
- Internetek harreman pertsonaletan duen eragina
- Internetek aisialdiko eta entretenimenduko jardueretan duen eragina
- Internetek jakintzan duen eragina

Dokumentu honek 2008ko urtarrilean 15 urte eta gehiagoko 1.383 lagunei egindako 25 galderatako inkestaren emaitza orokor nagusiak eskaintzen ditu.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 

b



Laburpena



b.

Laburpena

¿NOLA NABIGATZEN DUGU?

Internet erabiltzen duten gehienek maiz erabiltzen dute

Bizitza pertsonalean, lanean edo sozialean Internet sartu duten Gipuzkoako herritarrek modu intentsiboan erabili ohi dute Internet; hau da, astero erabiltzen dute. Hori dela eta, 15 urte eta gehiagoko herritarren %47k ohiko erabiltzailetzat du bere burua; bestalde, oso herritar gutxik erabiltzen du Internet maiztasun txikiagoarekin.

Beraz, gutxi gorabehera, eguneroko bizitzan, herritarren erdiak ateratzen die etekina Internetekin lotutako aukerei; beraz, gainerako erdiak aukera horietatik at bizi dira.

Pertsona horiek bizitzeko modua garatzen dute offline, edo beren behar edo ohitura pertsonalak direla eta, ez dutela Internetekin lotutako zerbitzuen edo aukeren beharrik agertzen dute.

Askotan, behar gabezia hori Internetek eskaintzen dituen aukerak ez ezagutzearen eragina izan daiteke, edo Internet gaitasun tekniko eta teknologikoetara, edo offlineko herritarren beharretara gehiago egokitu behar eraginaren eragina.

45 urtez gorako herritarren artean talde hori da nagusi; era berean, talde hori izan ohi da hezkuntza maila gutxien duena, ordaindutako lan merkatuan hain aktibo ez dagoena eta, neurri handi batean, baliabide ekonomiko gutxien duena.

Beraz, adina da Interneten erabileraren inguruko faktore erabakigarri nagusia. 25 urte baino gutxiagoko gazte gehienak erabiltzaileak dira; hala ere, adina aurrera doan heinean, erabiltzaile kopurua murriztu egiten da eta adinez nagusiagoak diren herritarren artean erabiltzaile kopurua oso baxua da.



Gipuzkoako etxebizitza gehienetan, abiadura handiko Interneteko sarbidea dute.

Internet erabiltzaileak diren Gipuzkoako hamar etxebizitzetatik bederatzik (etxebizitza guztien erdiak baino zertxobait gehiago) abiadura handiko sarbidea dute, ADSL konexioaren edo kable bidez.

Internet duten eta abiadura txikian konektatzen diren etxebizitzek agertutako arrazoen artean hauek dira nagusi: lantokia edo ikastetxea bezalako beste leku batetik kalitatezko sarbidea izateko aukera, kostu handia edo etxebizitzatik abiadura handiko sarbiderik eza. Zehazki, abiadura baxuan konektatzen diren bost etxebizitzetatik batek konexio hori hobetzeko ezintasuna agertu du.

Sarbide mugigarria gero eta garrantzitsuagoa eta ugariagoa da

Gutxi gorabehera, Interneteko edo posta elektronikoko sarbidea duten 10 pertsonatik 4k ordenagailu eramangarriaren eta kablerik gabeko (wi-fi, Internet mugigarriaren txartela) konexioaren bidezko sarbide mugigarriari esker egin dute sarrera, beren etxebizitzetatik edo lantokitik kanpo.

Interneteko sarbidea duten beste gailu mugigarri batzuk gero eta ezagunago ari dira bihurtzen; hala ere, gutxiengoak dira oraindik. Hain zuzen ere, %7 sakelako telefonoaren bidez konektatu ohi dira eta %6 PDA eta antzeko sistemen bidez [Blackberry, Palmtop,...].

Zortzi pertsonatik batek software libreko aplikazioak erabiltzen ditu

Zortzi pertsona erabiltzailetatik batek software libreko aplikazioak erabiltzen ditu, batez ere, Interneteko nabigatzailea (Mozilla Firefox...); hala ere, sistema eragileen (Linux...) edo ofimatikako tresnen (Open Office...) erabilera askoz ere txikiagoa da.

Gainera, lau pertsona erabiltzailetatik batek ez daki software librea zer den.



Hamar pertsonatetik batek euskaraz nabigatzen du, eta gazteen artean proportzio hori bikoiztu egiten da

Gutxi gorabehera, hamar erabiltzailetatik bederatzik nabigatzeko gaztelania erabiltzen dute; beraz, hamar pertsonatetik batek erabiltzen du euskara nabigatzean.

25 urtez beheko gazteen taldean, euskararen presentzia bikoiztu egiten da eta gutxi gorabehera, talde horretan, hamar pertsonatetik bik erabiltzen dute euskara nabigatzeko hizkuntza gisa.

ZEIN DIRA GURE e-GAITASUNAK?

Autoikaskuntza da Internetera gerturatzeko era nagusia eta lagunak, aldiz, ezagutzak hobetzeko modua.

Gipuzkoar gehienek Internet erabiltzeko beharrezko ezagutzak lortu dituzte autoikaskuntzaren bidez, eta neurri txikiagoan (herritarren herenak, gutxi gorabehera), prestakuntza espezifikoaren ikastaroen bidez.

45 urtez gorako pertsonen artean, ezagutzak prestakuntzaren bidez jaso dituztenen kopurua handitu egin da. Horrela, adin talde honetako erabiltzaileen erdiak prestakuntza ekintzaren bat egin du.

On-line nabigatzeko ezagutzak hobetu ahal izateko, gipuzkoarrak batez ere bi modutan sartzen dira: hasteko, lagunak eta lankideak edo ikaskideak nabarmendu behar ditugu, eta bigarrenik, familia kontsultaren bidezkoak.

On-lineko zerbitzuen erabilera maila (e-skills) ertaina dela esan dezakegu, adin taldeen arabera alde handiekin

Herritar erabiltzaile gehienek zerbitzurik oinarrizkoenak erabiltzen dituzte; hauek esaterako: bilatzaileen bidez informazioa aurkitzea eta e-mailak bidaltzea atxikitako artxiboekin.

Bigarren zerbitzu taldea gazte gehienek erabiltzen dute, baina tarteko adineko eta adinez aurreratuak diren herritarren artean gutxiengo gisa hartzen da.

Hauek dira erabilera horiek: txat edo foro batean mezuak bidaltzea eta trukaketa plataformak erabiltzea artxiboak, filmak, musika... jaisteko.



Hirugarren zerbitzu taldea, aurreratu gisa izendatzen direnak, gutxi gorabehera hamar pertsonatetik hiruk erabiltzen dituzte; proportzio hori zertxobait handiagoa da gazteen artean.

Talde horretan sartzen dira hiru erabilera hauek: Norbere edo besteen edukiak sarera igotzea elkarbanatu ahal izateko, Internet erabiltzea telefono deiak edo bideo-konferentziak egiteko, eta norbere web orria sortzea.

Gutxi gorabehera, herritar erdiak hezkuntza maila hobetzeko erabiltzen du Internet

Gutxi gorabehera, herritar erabiltzaileen erdiak maiz erabiltzen du Internet ezagutza maila hobetzeko; hau da, prestakuntza eta ikaskuntza helburuekin. Ehuneko hori ugari gaiten da gazteen artean.

Egindako prestakuntza eta ikaskuntza mota oso anitza da, eta ikaskuntza ez formala eta hezkuntza jarduera formalarekin lotutakoa nabarmendu behar dira.

Komunitate birtualetako parte hartzea gutxi hedatu da herritarren artean, baina apur bat altuagoa da gazteen kasuan

Sei pertsona erabiltzailetatik batek Interneteko, sare sozialeko, webm foroko edo blogeko komunitateren batean parte hartzen duela dio. Gazteen eta ikasleen artean, proportzio hori lau pertsonatetik batera igotzen da.

Pertsona horiek batez ere gai profesionaletan (lanarekin lotutakoak), kulturaletan (literatura, zinema, musika) eta beste zaletasun batzuetakoetan hartzen dute parte. Hala eta guztiz ere, gai politikoa lantzen dituzten komunitateetako parte hartzea oso txikia dela nabarmendu behar dugu.



ZENBAT ERAGITEN DU INTERNETEK GURE BIZITZETAN?

Internet izango ez balu, erabiltzaileen erdiak bere bizitza aldatu egingo litzatekeela aitortu du

Internet eguneroko bizitzan, bizitza pertsonalean, lan munduan edo Gipuzkoako herritarren harremanetan txertatzea garrantzitsua izan da eta erabiltzaile erdiak funtsezko gisa baloratzen du. Internet beren bizitzarako garrantzitsutzat jotzen dutelako edo, Internetik ez balego, pertsona horiek beren bizitzako zenbait alor edo jarduera aldatu behar izango lukete.

Modu osagarrian, zortzi pertsonatetik baten ustez, Internet bere bizitzarako funtsezko tresna da eta ehuneko berberaren esanetan, Internet garrantzitsua da beren eguneroko bizitzarako. Gainerakoek erabilgarritzat jotzen dute, eta helburu horretarako erabiltzen dutela aitortu dute.

Gaszteentzat, Internet beren lagunekin komunikatzeko eta harremana mantentzeko kanal garrantzitsua da

Interneten aurrean agertzen den jarrerak eta Internetek harreman pertsonaletarako dituen erabilerek alde handia erakusten dute adin talde ugarien artean. Herritar gaszteentzat, beste pertsonak ezagutzeko eta laguntasuna sendotzeko bidea da. Horrekin lotuta, esan beharrekoa da adin talde horretako hiru lagunetik bik erabili ohi duela horretarako.

35 urtetatik aurrera, nabarmen murriztu ohi da Interneten erabilera lagunekin harreman pertsonalak izateko tresna gisa eta Internet horretarako erabiltzen duten pertsonen ehuneko txikia da.

Telebista, Interneten hedapenaren eraginik handiena jasan duen entretenimendua

Aisialdiko eta entretenimenduko hainbat jardueraren artean, telebista da Interneten hedapenak gehien eragin diona (denbora gutxiago eskaintzen zaio). Ildo horretatik, bost pertsonatetik batek internautatzat du bere burua.

Era berean, hamar pertsonatetik batek irakurketarako denbora murriztu egin du, eta neurri txikiagoan, iratiaren eta zinemaren erabilera ere murriztu egin da. Hala eta guztiz ere, batez ere gazteen artean bideoak on-line ikusteak ohiko telebistari eskainitako denbora tarte txikiagoa orekatu du nolabait.



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 

d



¿Nola nabigatzen dugu?






d. ¿Nola nabigatzen dugu?

Etxebizitzen Internet konexioa eta sarbidearen kalitatea

Gipuzkoan bizi diren herritarren %56k Interneteko sarbidea du etxetik; ondorioz, joan den urtearekin alderatuta, kopurua %4 hazi da eta Gipuzkoa Europako batez bestekoan kokatzen da. Gainera, horien %91k, gutxi gorabehera, banda zabaleko konexioa du (ADSL edo kablea).

c.1 grafikoa__ Internet etxebizitzetan

[biztanleko %]




Etxean Interneteko sarbiderik ez izatea azaltzeko Gipuzkoako herritarrek adierazitako arrazoi nagusia beharrik ez izatea (%66) eta etxea ez den beste leku batzuetatik sartzeko aukera (%12) dira. Prezioa edo eremuan konexioaren kalitatea eskasa izatea dira gipuzkoarrek emandako beste azalpen batzuk, neurri txikiagoan bada ere. Banda zabaleko konexiorik ez dutenek ere antzeko arrazoiak ematen dituzte; hala ere, prezioa da arrazoi nagusia.



c.2 grafikoa__ Banda zabaleko konexioa etxebizitzetan

[biztanleko %]



Hala eta guztiz ere, Gipuzkoako etxeetan sartzeko disponibilitate maila edozein izanda ere, 15 urte eta gehiagoko herritarren %47ren arabera, Interneteko ohiko erabiltzailea da; hau da, gutxienez, astean behingo maiztasunarekin sartzen da Sarean eta oso herritar gutxi sartzen da maiztasun txikiagoarekin.

Beraz, gutxi gorabehera, eguneroko bizitzan, herritarren erdiak ateratzen dio etekina Internetekin lotutako aukerei; beraz, gainerako erdiak aukera horietatik at bizi dira.

Bigarren talde honetatik, nabarmendu beharrekoa da gehienetan 45 urte baino gehiagoko herritarrak izan ohi direla, eta era berean, hezkuntza maila baxueneko, diruz ordaindutako lan merkatuan hain aktibo ez dauden eta neurri handi batean, baliabide ekonomiko gutxien duten pertsonak izan ohi dira.


Beraz, begi-bistakoa da adina dela Interneten erabileraren inguruko faktore erabakigarri nagusia. Hain zuzen ere, 25 urteko ia gipuzkoarren %50 Interneten erabiltzaileak dira; adina aurrera doan heinean, internauten ehunekoa nabarmen murrizten da eta adinez nagusiagoak diren herritarren artean gutxiengoa baino ez dira.



Interneten sartzeko gailu berriak

Osagarri teknologiko berriak agertzeak, telekomunikazioetan izandako mailaz mailako aurrerapenekin lotuta, Interneten sarbidea izateko gailu berrien erabilera sustatu du. Ildo horretatik, egun, Interneteko sarbidea duten edo posta elektronikoa kontsultatzen duten 10 gipuzkoarretatik ia 4k sarbide mugigarri bidez egiten dute; hau da, ordenagailu eramangarriaren bidez edo kablerik gabeko konexio bidez (Wi-fi, Interneteko txartel mugigarria).

c.3 grafikoa__ Interneten sartzeko gailu berriak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala.

Internetera sartzeko beste gailu mugigarri batzuk ere gero eta garrantzitsuagoak ari dira bihurtzen Gipuzkoako internauten artean; horixe da sakelako telefonoaren edo PDA gailuen eta antzekoen kasua; hori aukeratzen dute internauten %7k eta %6k, hurrenez hurren.



Software Librea


Software librea gero eta gehiago erabiltzen da internauten artean. Software kontzeptu berri honekin, ordenagailua eta Internet erabili ahal izateko ez dago softwarea enpresa pribatuei erosi beharrik; gainera, programa horiek kopiatu, banatu, aldatu eta hobetu daitezke enpresa pribatuen beharrik gabe.

Gipuzkoan, internauta gehienen arabera, ez dute software librearen (%87) aplikaziorik erabiltzen. Horietatik, gainera, lau pertsonatik batek ez daki zer den ere.

Software librea ezagutzen eta erabiltzen duten gipuzkoarren kasuan (Internet erabiltzaileak diren zortzi pertsonatik bat), batez ere Interneteko nabigatzailearekin erabiltzen dute, Firefoxekin (%79), esate baterako. Linuxen moduko sistema eragile libreen erabilera murriztagoa (%42) da, baita OpenOffice (31%) gisako ofimatikako tresnen erabilera ere.

c.4 grafikoa__ Software Librearen erabilerak

(software libre erabiltzen duten biztanleen %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala



Nabigazio hizkuntza

Nabigatzeko aukeratutako hizkuntzari dagokionez, Gipuzkoako erabiltzaile gehienek gaztelania aukeratzen dute. Herritarrek euskaraz gaztelaniaz baino okerrago moldatzeak eta euskaraz eduki aukera gutxiago izateak azal ditzake emaitza horiek.

c.1 taula _____ Interneten nabigatzeko aukeratutako hizkuntza

(biztanle erabiltzaileen %)

	Guztira	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 urte eta gehiago	65 urte eta gehiago
Gaztelera	86,3	79,0	88,9	91,6	84,2	86,8	87,3
Euskara	10,7	18,2	7,1	6,4	12,4	13,2	3,8
Ingelesa	3,0	2,8	4,0	2,0	3,4		9,0


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Hamar erabiltzailetatik ia bederatzik gaztelania erabiltzen dute; beraz, hamar pertsonatetik batek euskara erabiltzen du lehenetsitako hizkuntza gisa. Hala eta guztiz ere, 25 urtez beheko gazteen taldean, euskara lehenesten dutenen kopurua bikoiztu egiten da eta hamar gaztetatik ia bik erabiltzen dute euskara Interneten sartzeko orduan hizkuntza nagusi gisa.

Bestalde, Interneteko hasiera orriko hizkuntza gisa euskara aukeratzen duten Gipuzkoako internauta kopurua %12koa da; ondorioz, euskaraz nabigatzeko alde aurretiko joera aktiboa dagoela esan daiteke.

c.5 grafikoa___ Interneteko hasierako orrialdearen hizkuntza

(biztanle erabiltzaileen %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 

e



Zein dira gure *e-gaitasunak*?





e.

Zein dira gure *e-gaitasunak*?

Hastapena eta nabigatzeko laguntza

Internet erabiltzen nola ikasi duten galdetu zaienean, Gipuzkoako internauta (%74) gehienek esan dute modu autonomoan lortu dituztela beharrezko ezagutzak, autoikaskuntza bidez, eta neurri txikiagoan prestakuntzako ikastaro zehatzen (%36) bidez.

Adinaren arabera, 45 urte eta gehiagoko internauten kasuan, beharrezko ezagutza ikastaro zehatzen bidez lortu ohi da gehien bat. Hain zuzen ere, adin tarte horretako erabiltzaileen erdiak adierazi du Interneten gaineko nolabaiteko prestakuntzaren bat jaso duela.

d.1 taula _____ Internet nabigazioa: hastapena

[biztanle erabiltzaileen %]

	Guztira	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 urte eta gehiago	65 urte eta gehiago
Prestakuntzako ikastaroak (KZgune, lanean)	36,5	34,7	31,5	30,0	49,4	45,5	56,9
Autoikaskuntza bidez	74,2	76,6	76,1	78,2	72,4	56,3	54,9
Familiakoei kontsulta	17,9	16,4	11,4	20,7	22,8	24,9	28,0
Lagunei/lankidei/ikaskidei kontsulta	27,4	32,7	23,8	30,1	25,8	24,0	17,9

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Interneten nabigatzeko gutxieneko ezagutzak lortu ostean, Interneten erabilerak zalantzak edo arazoak eragin ditzake. Kasu horretan, Gipuzkoako herritar erabiltzaileak batez ere bi iturritz baliatzen dira: hasteko, lagunak eta lankideak edo ikaskideak (%61) nabarmendu behar ditugu, eta bigarrenik, familia kontsultaren (%34) bidezkoak.

Interneten hornitzailea edo irakaslea (bai hezkuntza zentroan, bai lanean, KZguneetan...) Gipuzkoako internautek erabilitako baliabideak dira, neurri txikiagoan bada ere (%24).



d.2 taula _____ Interneteko arazoak edo zalantzak argitzeko laguntza

(biztanle erabiltzaileen %)


	Guztira
Interneteko hornitzailea	12,3
Familiakoak	34,4
Lagunak, lankideak edo ikaskideak	60,7
Irakaslea [KZgunean, hezkuntza zentroan, lanean, beste batzuk...]	11,6
Interneteko foro eta webgunetan	10,1
Normalean ez dut inolako zalantzarik/arazorik	12,9

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoa da aldea dagoela Internauten sexuaren arabera. Emakumeen kasuan, esate baterako, gehienek Interneteko arazoak edo zalantzak argitzeko lankideengana edo ikaskideengana (%56) jotzen dutela dioten arren, familia kontsultak (%45) ere garrantzi handia du. Gizonezkoen kasuan, bestalde, %25ek soilik jotzen dute familiartekoengana, eta Interneteko foro eta webetarako sarbidea nabarmentzen da nabigazioko arazoak (%15) konpontzeko irtenbide gisa.

d.1 grafikoa__ Laguntza Interneteko arazoak edo zalantzak argitzeko, sexuaren arabera

(biztanle erabiltzaileen %)





e-gaitasunak (*e-skills*)

Gipuzkoako internauta gehienek (%90) esandakoaren arabera, Interneten oinarritzko jarduerak egiteko gai dira; hau da, bilatzaileen bidez informazioa bilatzea eta posta elektronikoak atxikitako artxiboekin bidaltzea (%84).

Bigarren jarduera multzoa, hau da, txatetan, foroetan eta blogetan parte hartzea, edo filmak, musika edo gainerako artxiboak jaisteko trukaketa plataformak erabiltzea adinez ertainak edo adinduak direnen artean oso ezaguna izan ez arren, oso ohikoak dira herritar gazteen artean.

d.3 taula ____ Internet erabiltzeko gaitasunak

[biztanle erabiltzaileen %]

	Guztira	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 urte eta gehiago	65 urte eta gehiago
Informazio aurkitu bilatzaile baten bidez	90,1	88,2	90,0	93,5	89,9	87,0	88,3
Posta elektronikoak atxikitako artxiboekin bidaltzea	84,3	86,6	91,0	82,0	80,0	70,2	85,0
Txatetan, foroetan eta blogetan parte hartzea,	63,8	88,1	75,4	53,1	47,0	27,7	40,2
Telefono deiak edo bideo-konferentziak Internet bidez egitea	29,3	34,7	37,0	24,2	25,4	12,5	16,2
Elkartrukerako plataformak erabiltzea (filmak, musika, artxiboak, etab.)	60,0	82,7	69,3	49,4	42,0	40,7	30,6
Eduki propioak zein besteenak Sarera igotzea	37,9	51,0	49,1	19,7	31,1	31,1	30,4
Webgune propioa sortzea	23,3	34,2	28,6	13,0	19,2	13,8	17,2

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Hain zuzen ere, 25 urtez beheko Gipuzkoako internauten %88ren arabera, badakite txatetan, foroetan eta blogetan parte hartzen, eta %83k badakite plataformak edo artxiboak trukatzeko programak erabiltzen; hau da, kazaa, eMule edo BitTorrent gisakoak.

Beste jarduera konplexuagoak, hau da, bideoak, aurkezpenak, argazkiak, ezagutzak eta abar gisako edukiak webetan igo edo esekitzea artxiboak elkarbanatzeko (ikus Flickr, YouTube, Wikipedia... gisako adibideak), telefono deiak edo bideo-konferentziak egitea Interneten bidez (Skype...) edo web orriak sortzea ez dira Gipuzkoako internautek hain maiz erabiltzen dituzten gaitasunak.



Internauta gazteagoen artean, aipatutako gainerako gaitasunekin gertatzen den moduan, erabilera mailak hazi egiten dira. Hori dela eta, Gipuzkoako gazteen %51k nabarmendu dutenaren arabera, badakite edukiak igotzen edo esekitzen, %35ek Internet erabili dute telefono deiak edo bideo-konferentziak egiteko, eta %34k uste dute beren web orria sortzeko gai direla.


Sare bidezko prestakuntza

Aisialdiaz gain, Internet prestakuntzarako eta edozein gairi buruzko ezagutzak zabaltzeko kanal bikaina da. Hori dela eta, Gipuzkoako erabiltzaileen %45en arabera, azken hiru hilabeteotan Internet prestakuntza edo ikaskuntza helburuetarako erabili dute.

Adinari dagokionez, internauta gazteenak dira prestakuntza edo ikaskuntza helburuekin Sarea gehien erabiltzen dutenak.

d.2 grafikoa__ Internet bidezko prestakuntza

[biztanle erabiltzaileen %]



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Trebatzeko Internet erabiltzen duten Gipuzkoako internautek aukeratutako onlineko prestakuntza jardueren artean, hezkuntza jarduera ofizialarekin edo arautuarekin lotutakoak nabarmentzen dira (%37). Eskola osteko ikastaroak (%31), hizkuntza ikastaroak (%24) eta enplegu aukerekin lotutako beste ikastaro batzuk (%20) ere nabarmendu beharrekoak dira.




Web 2.0: Sarean parte hartzea

web 2.0 filosofiak internauten parte hartzeaz gain, erabiltzaileen artean informazio erabilgarriaren erabilera eta trukaketa sustatzen du.

Hori dela eta, Gipuzkoako sei internautatetik batek maiz hartzen du parte komunitate birtual, sare sozial, web, foro edo blogen batean. Internautaren adina murrizten den heinean, proportzio hori hazi egiten da eta gipuzkoarren kasuan, 25 urtez beheko lau pertsonatetik batean kokatzen da kopurua.

Gaiari dagokionez, internautek izaera profesionaleko komunitate birtualak bisitatzen dituzte gehien (%44); zaletasunekin lotutakoak (%42) dira hurrengoak, eta kulturarekin lotutakoak (%42) azkenak. Gipuzkoako internauta taldeek kirol gaiak (%30) lantzen dituzten komunitateak eta prestakuntza edota ikaskuntza alorrekin (%28) lotutakoak ere maiz bisitatzen dituzte.

d.3 grafikoa__ Komunitate birtualak: gaiak



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzako eta Jakintzaren Gizarteko Departamentua
Departamento de Innovación y Sociedad del Conocimiento

i-gipuzkoa2010 

e



Zenbat eragiten du Internetek
gure bizitzan?





e.

Zenbat eragiten du Internetek gure bizitzan?


Internetekiko jarrera

Internet Gipuzkoako herritarren eguneroko bizitzan, bizitza pertsonalean, lanekoan edo harremanen inguruko bizitzan txertatzea oso garrantzitsua izan da. Hori dela eta, Gipuzkoako lau internautatetik batek jarrera gogotsua erakusten du, eta Internet eta teknologia berriak eguneroko bizitzarako beharrezkoak (%13) edo garrantzitsuak (%14) direla nabarmentzen du.

Gainera, herritar erabiltzaileen %70en esanetan, tresna horiek erabilgarriak dira eta erabiltzen dituztela diote; beraz, gainerako %30ek jarrera eszeptikoagoa erakusten dute.

e.1 grafikoa__ Internetekiko jarrera

(biztanle erabiltzaileen %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Adin taldeen arabera aldeak ez dira nabarmenak; hala eta guztiz ere, herritar gazteenek (15 eta 34 urte artekoek) erakusten dute gogo gehien teknologia berriek eta Internetek beren eguneroko bizitzetan duten eraginaren aurrean.



e.1 taula **Internetekiko jarrera pertsonala, adinaren arabera**

(biztanle erabiltzaileen %)

	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 urte eta gehiago
Funtsezkoa da nire bizitzan	16	16	10	10	9
Garrantzitsua da nire bizitzan	14	16	15	11	6
Erabilgarriak dira eta erabiltzen ditut	69	66	68	75	77
Ez dut interes askorik	1	1	7	4	6
Ez dut inolako interesik	0	0	0	0	1

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Lan egoerari dagokionez eta IKTen eraginak aintzat hartuz, etxeko lanez arduratzen direnen eta, batez ere, erretiroa hartutako herritarren eszeptismoa nabarmendu behar da.

e.2 taula **Internetekiko jarrera pertsonala, lan egoeraren arabera**

(biztanle erabiltzaileen %)

	Lanean	Autonomoa	Ikaslea	Langabetua	Erretiraturua	Etxeko lanak
Funtsezkoa da nire bizitzan	14	16	14	13	2	4
Garrantzitsua da nire bizitzan	14	14	17	17	0	9
Erabilgarriak dira eta erabiltzen ditut	68	70	69	70	95	73
Ez dut interes askorik	4	1	1	0	3	14
Ez dut inolako interesik	0	0	0	0	0	0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Internetek eguneroko jardueretan duen eragina


Bestalde, Gipuzkoako hiru internautatetik baten iritziz, Internet eguneroko jarduerak garatzeko tresna garrantzitsua da; hori dela eta, Internetik gabe zaila edo ezinezkoa izango litzateke zeregin horiek garatzea.

Gainera, Gipuzkoako herritar erabiltzaileen %56k dioenez, Sarea desagertuko balitz, beren eguneroko bizitzako zenbait alor aldatuko lirateke. Internauten %8k soilik bizi ahal izango luke tresna hori gabe.



e.2 grafikoa__ Internetek eguneroko jardueretan duen eragina

(biztanle erabiltzaileen %)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Adin taldeen arabera, Sarearen eragina handiagoa da gazteen artean (15 eta 34 urte artekoak). Hala eta guztiz ere, nabarmendu beharrekoa da adinez nagusiagoak diren herritarren artean Internetek beren eguneroko bizitzan eragin txikia duela nabarmentzen duten herritarren proportzioa txikia dela.

e.3 taula __ Internetek eguneroko jardueretan duen eragina, adinaren arabera

(biztanle erabiltzaileen %)

	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 urte eta gehiago
Eragin handia/oso handia	38	42	32	34	25
Erdi/Behe mailako eragina	53	51	57	61	71
Eragin txikia	10	7	11	4	4

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Bestalde, eguneroko jardueretan Interneten eraginaren gaineko balorazioak herritar langileen eta ikasleen artean lortu du maila gorena.



e.4 taula **Internetek eguneroko jardueretan duen eragina, lan egoeraren arabera**

[biztanle erabiltzaileen %]

	Lanean	Autonomoa	Ikaslea	Langabetua	Erretiraturia	Etxeko lanak
Eragin handia/oso handia	36	45	41	40	8	16
Erdi/Behe mailako eragina	57	47	49	51	92	70
Eragin txikia	7	7	10	9	0	13

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala


Internetek harreman pertsonaletan duen eragina

Harreman pertsonaletan Sareak duen eraginari dagokionez, nabarmendu beharrekoa da Gipuzkoako internauten %40ren iritziz, Interneti esker lagunekin etenik gabeko harremana mantentzea lortu dutela; horri dagokionez, %28k adierazi dute beste pertsona batzuk ezagutzeko balio izan duela. Gainera, %14ren esanetan, Interneti esker babes gehiago sentitu dute eta hain bakarrik ez egoten lagundu die.

Bestalde, Gipuzkoako internauten %2k soilik pasatu dute denbora gutxiago lagunekin.

e.3 grafikoa **Internetek harreman pertsonaletan duen eragina ***

[biztanle erabiltzaileen %]



* Aukera anitzeko erantzuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala



Adin taldeen artean alde handia dago Interneten eta harreman pertsonaletarako Interneten erabilerari buruzko jarreran. Hori dela eta, herritar gazteentzat, Sarea beste pertsonak ezagutzeko eta babesa emateko bidea da; gainera, lagunekin etenik gabeko harremana mantentzen laguntzen die.

Hala eta guztiz ere, 35 urtetik aurrera, nabarmen murrizten da laguntasuneko harreman pertsonalen tresna gisa Interneten erabilera.

e.5 taula _____ **Internetek harreman pertsonaletan duen eragina, adinaren arabera ***

	(biztanle erabiltzaileen %)				
	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 urte eta gehiago
Jendea ezagutzea	62	31	13	11	12
Lagunekin harreman estuagoa	65	49	25	19	26
Ez naiz hain bakarrik sentitzen	14	23	14	8	11
Lagunekin denbora gutxiago	2	2	2	2	3

* Aukera anitzeko erantzuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Internetek aisialdian eta entretenimenduan duen eragina


Bestalde, Interneten erabileran denbora gehiago igarotzeak aisialdiaren eta entretenimenduaren kontsumoari eragin dio. Zehazki, aisialdiko eta entretenimenduko jardueren artean, Interneti denbora gehiago eskaintzeak telebistari eragiten dio gehien.

Illo horretatik, Gipuzkoako internatuen %21en arabera, telebista gutxiago ikusten dute; bien bitartean, %11k irakurketari denbora gutxiago eskaintzen diotela nabarmendu dute, eta %9ren esanetan, irratia gutxiago entzuten dute; %8 zinemara gutxiago joaten dira eta %3 gutxiago joaten dira kirol ekitaldietara.



e.4 grafikoa__ Internetek aisialdian eta entretenimenduan duen eragina *

(biztanle erabiltzaileen %)



* Aukera anitzeko erantzuna.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Sarea zabaltzeak batez ere herritar gazteen aisialdi eta entretenimendu ohiturei eragiten die. Hori dela eta, 15 eta 34 urte arteko Gipuzkoako lau internautatik batek adierazi du telebista gutxiago ikusten duela; bien bitartean, hamar internautatik batek gutxiago irakurtzen du eta irrati gutxiago entzuten du.

e.6 taula ____ Internetek aisialdian eta entretenimenduan duen eragina, adinaren arabera *

(biztanle erabiltzaileen %)

	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 urte eta gehiago
Zinema gutxiago	7	9	6	6	14
Telebista gutxiago	24	28	15	15	14
Irrati gutxiago	10	12	8	0	10
Irakurketa gutxiago (aldizkariak, egunkariak, liburuak...)	12	11	7	15	15
Kirol ikuskizun gutxiago	4	3	4	0	0

* Aukera anitzeko erantzuna


Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala



Hala eta guztiz ere, Sareari esker, tradizioz off-line egiten ziren aisialdi jarduerak on-line egin daitezke. Ildo horretatik, Gipuzkoako hiru internautatetik batek bideoak Internet bidez ikusten ditu, eta %22k irratia on-line entzuten dute. Era berean, kopurua murriztagoa den arren, garrantzitsua da Sarea on-line jolasteko (%16) edo telebista ikusteko (%11) erabiltzen dutenen kopurua.

e.5 grafikoa__ Aisialdiko eta entretenimendu jarduera tradizionalak Sarearen bitartez*

(biztanle erabiltzaileen %)



* Aukera anitzeko erantzuna.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala

Aisialdiko jardueretarako Internet erabiltzen dutenen kopurua nabarmen handiagoa da gazteen artean.

e.7 taula ____ Aisialdia eta entretenimendu jarduera tradizionalak Sarearen bitartez, adinaren arabera*

(biztanle erabiltzaileen %)

	15 - 24 urte	25 - 34 urte	35 - 44 urte	45 - 54 urte	55 urte eta gehiago
Irratia entzun	30	27	12	16	18
Telebista ikusi	19	10	5	10	11
Bideoak ikusi	56	35	17	19	21
On-lineko jokoetan ibili	39	12	8	8	8

* Aukera anitzeko erantzuna

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala




Internetek ikaskuntzan duen eragina

Era berean, Interneten erabilerak Gipuzkoako herritarren prestakuntzari, ezagutzari eta ikaskuntzari eragiten dio. Zehazki, hamar internautatatik bederatzik, Sareari esker, beren ezagutza orokorrak zabaldu ahal izan dituzte. Gainera, Gipuzkoako internauten proportzio handi baten esanetan, Interneten erabilerari esker, osasunarekin lotutako gaietan ezagutzak lortu dituzte (%52), gaitasun berriak ikasi dituzte (%51), beren zaletasunekin lotutako gaietan informazioa lortu dute (%48), gaitasun berriak lotu dituzte (%41), beren seme-alaben prestakuntzan/hezkuntzan laguntza izan dute (%29) edo hizkuntzak ikasi dituzte (%22).

e.6 grafikoa__ Internetek prestakuntza eta ikaskuntzan duen eragina *

[biztanle erabiltzaileen %]



* Aukera anitzeko erantzuna.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Gipuzkoarren bizimodu digitala